

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Mila Mendia Goitia Larrosinekua,
Maittenekua*

*Lekeitio,
Bizkaia (1931)*

Aurkibidea



Biografia



1931. urteko Milagrosa egunean sortu zen Eskolapeko 'Mendienekua' etxean. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen: aitaren aldekoak *Larrosinekua* desizenez ezagunak eta amaren aldekoak "*Maittenekua* desizendunak. Bederatzi neba-arrebadun familia osatu zuten. Aita makinista eta errepublikazalea zen eta Gerra Zibilean alde egin behar izan zuten mugaz beste aldera: Hendaiako senitarteko batzuenera joan ziren eta lau urtez egon ziren bertan. Aitak ezin izan zuen Lekeitiora bueltatu; Bilboko San Antonetik Santanderrera eta handik etxera etorri zen hiltzorian egon zenean. Garai hartan, aitaren izenean zeuden ondasun guztiak kendu zizkieten: jaiotetxea bera, Gallo taberna... Aitak zabaldu zuen Gallo taberna, oilar-auskei zien zaletasuna omenduz. Milak 17 urte zituenean hartu zuten berriro ere taberna eta hantxe aritu zen urte askoan lanean. Etxeko amama petrikiloa eta Kaxarranka dantzako banderaren jostuna izan zen. Eskolapeko bizipenak, umetako gaiztakeriak, tabernako anekdotak, amamarengandik jasotako erremedio naturalen sekretuak, abestiak... kontatu zizkigun besteak beste umoretsu eta pozez. Azken bi zintetan bere umetako lagun mina den [Ana Mari Trebiño](#)gaz batera parte hartu zuen.

Zintak

LEK-068

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Esti
- **Data:** 2012-06-19
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

LEK-069

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Esti
- **Data:** 2012-06-19
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

LEK-070

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Esti
- **Data:** 2012-06-19
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

LEK-071

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-07-13
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

LEK-072

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-07-13
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Abesten ikasi zituzten aditzak

- **Erref:** LEK-068/002
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:00:06. **Bukatu:** 00:01:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan gauza asko kantatzen ikasi zituen. Baina gero metodo hori kendu egin zuten, ezin ei zen kantatzen ikasi eta berak ordudunik ez zuen askorik ikasi. Hendaian errefuxiatuta zeudela ikasitako abestiak ere oraindik gogoan ditu.

2. Umetan frantsesa oso ondo zekien

- **Erref:** LEK-068/003
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:01:17. **Bukatu:** 00:03:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Gerra zibilean Hendaian egon zen eta bertako eskolara joan zen. Lekeitiora bueltatu ostean, mojen ikastetxera joan zen. Frantsesa irakasten zuen mojak baino frantses gehiago ei zekien Milak berak. Hala ere, gaur egun ia dena ahaztu du.

3. Dotrina Hendaiaiko mojekin

- **Erref:** LEK-068/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:06:06. **Bukatu:** 00:07:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Gerra Zibilean Hendaian egon ziren. Dotrina mojekin ikasi zuen bertan. Beraien ama nagusiaren moduko begiak zituela-eta, asko maite zuten mojek Mila. Erreka ondora jolasten eta sua egiteko egur bila joaten ziren.

4. 5.000 pezetako isuna errekiatutako etxea berreskuratzeko

- **Erref:** LEK-068/007
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:08:24. **Bukatu:** 00:11:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>1937ko apirilaren 28an izan zen Lekeitioko ebakuazioa eta lau urtez egon ziren Hendaian. Aita errepublikazalea zen eta ezin izan zuen beraiekin joan, fitxatuta zegoen-eta. Alemaniarrak Frantzian sartu orduko bueltatu ziren berriro ere Lekeitiora. Etxea ere errekiatu zieten eta 5.000 pezetako isuna ordaindu behar izan zuen amak etxea berreskuratu ahal izateko. Etxea zikin-zikin aurkitu zuten. Etxera bueltatu baino lehen, etxe desberdinetan sakabanatuta egon ziren etxeak.</p>

5. 'Larrosinekua' eta 'Maittenekua' desizenak

- **Erref:** LEK-068/010
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:15:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aitaren aldekoak Larrosinekua desizenez ezagunak eta amaren aldekoak "Maittenekua desizendunak. Desizenon azalpena ematen du.</p>

6. Belarria dindilizka haginka egin ostean

- **Erref:** LEK-068/013
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:19:43. **Bukatu:** 00:21:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Bere ahizpa batek mutiko bati belarrian haginka egin eta dindilizka utzi zion. Mutikoaren aita aittoa hartu eta bere atzetik joan zen, baina ezin zuen umea harrapatu.

7. Mandaskak eta iturria

- **Erref:** LEK-068/015
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:22:53. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Eskolape ondoan mandaska (mandoentzako aska) handi bat zegoen eta ganaduak bertara joaten ziren ura hartzen. Eurak Eskolapeko iturrira joaten ziren ur bila, gaur egun botika dagoen tokira. Egunero joaten ziren pitxerra hartuta.

8. Taloa jan zion katua txapa gainera zigor modura

- **Erref:** LEK-068/017
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:25:47. **Bukatu:** 00:29:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gerraostean ez zuten ogirik izaten, taloa baizik. Behin bere ahizparen taloa eta afaria katuak jan zuen. Bere ahizpak orduan katua hartu eta txapa gainera bota zuen. Katua zoro baten modura hasi zen, atetik irten eta ez zen gehiago etxera bueltatu.

9. Arrosarioaren garrantzia

- **Erref:** LEK-068/018
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:29:19. **Bukatu:** 00:30:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Amuma eskutik heldu eta arrosarioa errezatzen zuten etxeko karrajuan (pasilloan) aurrera eta atzera zebiltzan bitartean. Ahizparen mutil-laguna etxe azpian zain egon arren, amumak ez zuen horrelakorik ulertzen eta zain egon behar izaten zuen, errezoak sakratuak ziren.

10. Amuma petrikiloa

- **Erref:** LEK-068/019
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:30:34. **Bukatu:** 00:32:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikuak

Laburpena:

Bere amuma petrikiloa (kurandera) zen. Botikara joan eta kokomarroa erosten zuten amumaren aginduz. Kokomarroagaz sendaketak egiten zituen. Hainbat osagai nahastuta egiten zuen ukendua. Arrantzale asko joaten ziren beregana eskuetan zituzten zauriak eta infekzioak osatzeko.

11. Tripako minentzako gerezien adarrak kamamilagaz

- **Erref:** LEK-068/021
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:33:26. **Bukatu:** 00:35:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Bere amamak hainbat erremedio natural zekizkien. Berak ere egin izan ditu enplastoak berbena belarragaz. Tripako minentzako gerezien adarrak gorde, sikatu eta kamamilagaz batera prestatzen ziren.

12. Bularrerako enplasto

- **Erref:** LEK-068/022

- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:37:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Bularreko gaixotasunetarako eta infekzioetarako enplastoak egiten ziren. Tuberkulosiak jotako jende asko zegoen orduan. Berakatzak berbera belarragaz batera zartaginean pasa, arrautzaren zuringoagaz tortilla bat balitz legez prestatu, paparra alkoholagaz garbitu eta enplastoak jartzen zuten izara zahar batean-edo. Trapu batekin azaltzen du pausuz pausu prozesua. Hurrengo egunerako zikina kanporatuta egoten zen.

13. Kokoteko antraxak

- **Erref:** LEK-068/024
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:38:48. **Bukatu:** 00:39:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Kipula oso ona ei da bihotzarentzako. Gizonezko askok antraxak izaten zituzten kokotean eta osatzerakoan zuloak gelditzen zitzaizkien.

14. Saburdinaren pozoia

- **Erref:** LEK-068/027
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:41:19. **Bukatu:** 00:43:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Saburdinak pikatuz gero, pozoia zabaltzen zaizula igartzen du norberak. Hori dela-eta, hondartzako txabolan, akerraren adarra, labana, gasak... prest izaten zituzten. Pozoia zelan ateratzen zuten azaltzen du. Bukaeran akerraren adarragaz estutzen zuten zonaldea.

15. Gallo taberna zabaldu zenekoa

- **Erref:** LEK-068/031
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:50:51. **Bukatu:** 00:53:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Gallo taberna bere aitarena zen, baina gerran ondasunak kendu zizkietenean taberna ere galdu zuten. Bere aitak oilar-auskei zien zaletasuna tarteko izen hori jarri zion tabernari. Taberna zabaltzea zelan erabaki zuen azaltzen du.

16. Karneteko abizena zuzen ipinarazi zuen

- **Erref:** LEK-071/002
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:00:11. **Bukatu:** 00:00:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Ana Mari Trebiño Lauzirika izenez. Bartzelonan Lausirica ipini zioten karnetea eta aldarazi egin zuen.</p>

17. Ana Mariren gaztetako amodioak

- **Erref:** LEK-071/006
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:04:04. **Bukatu:** 00:06:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak

Laburpena:

<p>Gizon asko izan zituen maiteminduta Ana Marik gazte-denboran. Bati amodioa ez, pena ziola dio. Ana Marik halako egoeretan atzeraka egiten zuen, karramarroa bezala. Pastel gozo asko jandakoa da mutilen kontura, baina horietako batek txanpon berarekin ordaindu zion handik urte askora.</p>

18. Euliak eztira bezala mutilak Ana Mariri

- **Erref:** LEK-071/007
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:06:14. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak

Laburpena:

<p>Milak dio euliak eztira bezala joaten zitzaizkiola gizonak Ana Mariri. Bular handiak omen zituen ("kantinplorak"), bera, berriz, "de Castell&ocute;n de la Plana" ei da. Behin Logroñon ikasten zegoen aberaskume bat bisitatzeraz joan ziren, baina Milak atzeraka egin zuen harekin ere. Mutil txikia begitantzen zitzaion, eta berari handiak gustatzen.</p>

19. Bartzelonara Lekeitioko "zortzi neska mando"

- **Erref:** LEK-071/008

- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:10:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Bartzelonara joan ziren "zortzi neska mando" Lekeitiotik. Ana Marik Ameriketara lanean zegoen aitari eskatu zion dirua. Han zabaldu zitzaizkien begiak. Ederto ibili ziren Bartzelonan. Boltseraren (diruzaina) kontuak.</p>

20. Bartzelonatik Villasa de Mar-era

- **Erref:** LEK-071/009
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:10:38. **Bukatu:** 00:12:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Bartzelonatik Villasar de Mar-era joan ziren. Treneko gorabeherak. Taxisean joan ziren geltokitik herrira.</p>

21. Mutilari barre itsusia zelako

- **Erref:** LEK-071/010
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:12:46. **Bukatu:** 00:14:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak

Laburpena:

<p>Mutil bat ikustera zihoan nesketariko bat; Jaume zen mutil hori. Ikusi zutenean, barreari eman zioten neskek, oso itsusia zelako. Txarto portatu zirela onartzen dute.</p>

22. Jordi Lekeition

- **Erref:** LEK-071/013
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:21:06. **Bukatu:** 00:24:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Ana Mariren senarra, Jordi, kataluniarra da. Autobusez heldu zen Bilbotik Jordi. Ana Mariren bihotza lehertu beharrean. Herria erakutsi zion. Hamabost bat egun egin zituen Lekeition.</p>

23. Benetako amodioa Juana Mari eta Jordiren artekoa

- **Erref:** LEK-071/014
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:24:41. **Bukatu:** 00:26:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Ana Mariren senarra Kataluniakoa da. Jordi Lekeition egon eta gero Ana Mari Jordiren herrira joan zen. Itsua ei da amodioa. Urte eta erdi egon ziren elkar ikusi gabe. Milak ezin izan zuen ezkontzara joan. Gutun bidezko amodioak existitzen direla dio; behin irratira deitu zuen hori ukatzen zuen bat gezurtatzera.</p>

24. Hilekoaren lehen bisita

- **Erref:** LEK-071/020
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:33:22. **Bukatu:** 00:35:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Milaren bidez jakin zuen Ana Marik hilekoa zer zer. Lehen 'bisitaren' esperientzia kontatzen du, nola jarri zuen zapia, heldu zen eskolara hanka-zabalka eta nola itzuli zen etxera zorabiatuta zegoela esanez.</p>

25. Senarrak azaldu zizkion sexuari buruzko gorabeherak

- **Erref:** LEK-071/021
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:35:05. **Bukatu:** 00:36:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Senarrak ezkondu ziren egunean esplikatu zizkion sexuari buruzko gauzak. Horretaz ez omen zekiten ezer. Hogeita zortzi urte zituen ordurako. Umore handiz kontatzen ditu horren ingurukoak.</p>

26. Nola demontre jaiotzen dira umeak?

- **Erref:** LEK-071/024
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:38:29. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Auzoko emakume batek "umea galdu zuela" entzun zuen Milak, eta ez

zuen esaldia ulertzen. Ana Marik ere ez zuen ulertzen nola irten zitekeen umea hain zulo txikitik. Umea izan zuenean ezusteko handia izan zen berarentzat.</p>

27. Elizatik kostata ihes egin zutenekoa

- **Erref:** LEK-071/034
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:50:45. **Bukatu:** 00:53:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Behin mojen Santa Rita elizara joan ziren kuadrilla. Begitan hartuta zituzten han, eta fraideek elizako atea itxi zieten. Ana Marik fraideari bultza egin eta neskak arrapaladan irten ziren, baina kanpoko atea ere itxita zegoen eta nola edo hala gainditu ahal izan zuten hesia, mutil baten laguntzaz.</p>

28. Ana Mari prozesioetan banderadun

- **Erref:** LEK-071/035
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:53:14. **Bukatu:** 00:54:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Ana Mari "barrukuma" ('interna') egon zen Bilboko ikastetxe batean. Moja batez maiteminduta egon ei zen. Prozesioetan berak eramaten zuen bandera, nahiz eta portaera txarrekoa izan.</p>

29. Ana Mariren bihurrikeriak

- **Erref:** LEK-071/037
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:56:02. **Bukatu:** 00:58:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Bihurrikeria handiak egiten zituen ikastetxean. Patatak zuritzea izaten zen zigorra. Baina txiki-txiki eginda uzten zituen. Beste behin, Bermeon, behi-bekorotza paperen bildu eta mojen tornuan jarri zuen. Mojek igarri nor izan zen, eta astebate izan zuten zigortuta komentua garbitzen.</p>

30. Lekeitioan emakume asko kartzelan eta umiliatuta

- **Erref:** LEK-071/042
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:01:42. **Bukatu:** 01:03:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Aitari pilota gustatzen zitzaion. Ameriketatik etorri zenean, Gernikara joaten zen partiduak ikustera. Dirua ere jokatzen zuen. Aitaren anaiaren erruz egon zen Ana Mariren ama kartzelan. Emakume asko egon zen Lekeitioko kartzelan. Ilea moztu, errizino-olioa eman..., umiliazioa handiak sufritu zituzten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com